

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4879

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 4koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez ematen baitira Vitoria-Gasteizko udalerrian (Arabako Lurralde Historikoa) «Mercedes Benz konpainiaren 220 kV-ko azpiestazioa eragiketa-prozedurara egokitzeko eta kontsumitzailea handitzeko» proiektuari dagokion instalaziorako aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena.

Espediente-zenbakia: 01ATY 202500012.

AURREKARIAK

1.– 2025eko martxoaren 11n, Red Eléctrica de España SAU enpresak eskatu zituen aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena Gasteizko udalerrian «Mercedes Benz konpainiaren 220 kV-ko azpiestazioa eragiketa-prozedurara egokitzeko eta kontsumitzailea handitzeko», proiektuari dagokion instalaziorako.

2.– Proiektua jendaurrean jarri da, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan ezarritakoa betez, zeinak arautzen baititu energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioak eta kontsumitzaileak konektatzeko harguneak, linea zuzenak eta instalazioak eraikitze, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenaren prozedurak.

3.– Horretarako, jendaurrean jartzeko izapidearen barruan, iragarkia argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, 2025eko irailaren 29an, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2025eko irailaren 26an. Era berean, 2025eko irailaren 26an iragarkia argitaratu zen, Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasun Sailaren webgunean, proiektuaren dokumentuekin batera, interesdunek eta herritarrek aztertu ahal izateko.

4.– Jendaurreko informazioaren izapidearekin batera, 2025eko irailaren 26an, ondasun eta eskubideak eraginpean dituzten administrazio, organismo eta zerbitzu-enpresei kontsultak igorri zaizkie, horretarako dagokien separatak bidaliz:

- Gasteizko Udala.
- Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Batzorde Probintziala.
- Arabako Foru Aldundiko Ondare Kulturaren Zerbitzuko Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Mercedes-Benz España SA.

Jendaurreko informaziorako eta kontsultarako epea amaitu ondoren, ez da berariazko erantzunik jaso eta ez da aurkeztu proiektuari buruzko alegaziorik.

5.– Kontsulten izapidearen barruan, 2025eko irailaren 29an, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren aurretiazko txostena eskatu zen, Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen 35.2 artikuluan eta Energia elektrikoko instalazioak garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2025eko azaroaren 17a, astelehena

2025eko irailaren 29an, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak igorritako aldeko txostena jaso zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren lurralde-ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, hala xedatzen baita Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan.

2.– Espediente hau izapidetzerakoan, energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak ezarritako xedapenak bete dira.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har edo zehazki aplikatu behar diren gainerakoak oinarri hartuta, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarriak honako hau

EBAZTEN DU:

1.– Red Eléctrica de España SAUri aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeke administrazio-baimena ematea, Gasteizko udalerrian «Mercedes Benz konpainiaren 220 kV-ko azpiestazioa eragiketa-prozedurara egokitzeko eta kontsumitzailea handitzeko», proiektuari dagokion instalaziorako.

Ebazpen hau ematen da honako baldintza orokor hauek kontuan hartuta:

1.– Onartutako proiektuari jarraikiz egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera. Epe hori igarota ez bada instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

3.– Instalazioen titularrak, proiektua gauzatu ondoren, eta arauzko egiaztapenak egin ondoren, obrak amaitu direla jakinaraziko dio Arabako lurralde-ordezkaritzari, ustiatzeko eta martxan jartzeko baimena eman dezan. Horrekin batera, aplikatu beharreko erregelamendu teknikoetan adierazten den dokumentazioa aurkeztuko du.

4.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere, eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzailerak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Deskarbonizazio zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erki-deari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 4a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.